



# Harakin eta zirujau



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**E**rroma, 1215eko apirila. Laterango IV. Kontzilioan, Eliza Katolikoak apaiz eta monjeei kirurgia egitea debekatu zien, besteak beste. Aurreko kontzilioetan ere, Reimsen eta Toursen, gaia landu zuten, lekaideek soilik arimak salbatzeaz arduratu behar zutela eta gorpuen salbazioa alboratu behar zutela argudiatuta. Eta hurrengo mendean San Joan Laterangoaren basilikan hartu zen behin betiko erabakia, eta araua hausten zutenei eskumikatzeko zigorra ezarri zitzaion.

Antzinako greziarren eta erromatarren medikuntza ezagutzak IV. eta X. mende bitartean galduz joan ziren, eta oraindik gordetzen zirenak monasterioetan zeuden –Umberto Ecoren *Arrosaren izena* lanean jaso bezala–. Medikuntzaz eta, beraz, kirurgiaz gehien zekitenei jardutea debekatu zieten, haien erreleboa anatomiaz asko zekien beste gremio batek hartu zuen: harakinek.

Zehazki, Umbria eskualdeko Norcia herriko harakinek haragia mozteko trebezia berezia zuten Erromatar Inperioaren garaitik eta, kontzilioaren ondorioz, bizirik zeuden gizakien haragia mozten ere hasi ziren. Beren jatorria zela eta, *norcini* esaten zitzaion; gaur egun, italiar *norcino* hitza harakinaren sinonimoa da oraindik. Tumoreak, herniak eta kataratak sendatzeko kirurgia egiten zuten, eta garai batzuetan eskaera handia izan zuten mutikoak zikiratzen, kantuan



Annibale Carracciren *harategia*, 1580. urte ingurukoa.

karrera egin zezaten, hau da, *castrato*-ak izan zitezten.

Zirujau eta harakin ibiltariak ziren, binaka ibiltzen ziren batetik bestera, eta maiz Umbriatik kanpo ere jarduten zuten, Italiar penintsula osoan.

Paolo Savoia historialariaren ustez, anatomiaren ezagutza teoriko handia zuten eta, gainera, tresneria zehatza eta

ebakuntzak egiteko esperientzia praktikoa. Horregatik, ez zaigu zertan harri-garria iruditu bi jardunak bateratzea: “Gutziz ulergarria da bi lanbideen arteko lotura hain arrakastatsua izatea”. Harri-garriagoa iruditu beharko litzazuke beste “gremio” bat arimak salbatzeko eta gorputzak zaintzeko jardunak bateratzeko gai ez izatea. ●



## 280 milioi urteko faltsifikazioa

Italiar Alpeetan duela 280 milioi urteko narrasti baten fosila topatu zuten 1931n. *Tridactylus antiquus* espezie moduan katalogatutako fosila, lehen narrastien eboluzioa aztertzeko funtsezkotzat jo izan da ia mende batez; hainbat adituk izan dute hizpide liburu eta artikuletan, eta galdera eta zalantza ugari utzi ditu agerian, baina orain arte inork ez zuen

fosila sakon aztertu, Corkeko (Irlanda) unibertsitateko ikerlari batek teknologia berrien bidez ikertzea erabaki duen arte. Eta erantzun bat lortu dute: halako aurkikuntzekin zuzurtiaz jokatu behar dela, ikusgai dagoen fosilaren zatia ez baita narrastiaren azala, pintura beltza baizik. Hau da, fosila manipulatu, faltsifikatu dago. ●